

2004KO OTSAILAREN 10EKO **PRESAZKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko otsailaren hamarrean, eguerdiko hamabi terdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, presazko ez-ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Gorka Lamy Insausti, eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Barandiaran Aldasoro, Xabier Arrasate Aierbe, Juan Manuel Serna Portugal eta Milagros Alvarez Novoa zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman eta deialdiaren presazko izaerari buruz galdetzen du.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du berari ez zaiola iruditzen presazko deialdia egiteko ziorik zegoenik.

Bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko zazpi botu (EAJ, EA), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PP) deialdia berretsi egiten du.

Jarraian deialdi honen gaiari heltzen zaio, egun hauetan egon diren atxilotetaren inguruko bi mozioei.

Areria Zutabeak izenpetutako mozioak honela dio:

“ANITZ ESKISABEL ASKATU!

Anitz Eskisabel herritarraren atxilotetaren aurrean, Areria Zutabea herri plataformak ondorengo adierazpena helarazi nahi die herritarrei, Lazkaoko Udalbatzaren bidez:

- 1.- Irmoki salatu nahi dugu Anitz Eskisabel herritarraren atxiloteta, baita sarekada berdinean atxilotutako beste bederatzi Euskal Herritarrena ere. Garbi utzi nahi dugu atxiloteta hauek ez dutela Euskal Herriko gatazka politikoa aterabidean jarriko, alderantziz, gatazka bera, areagotu eta modurik gordinenean azaleratzen du.
- 2.- Gatazka politikoaren konponbidea, elkarriketa eta euskal herritarren hitza eta erabakia errespetatzean datzala adierazi nahi dugu.
- 3.- Anitzi, bere familiari eta lagunei gure elkartasun beroena helarazi nahi diegu eta esan, ondoan izango gaituztela atxiloteta bortitz hau salatzeko garaian.

- 4.- Gure kezka adierazi nahi dugu, Anitzek eta beste atxilotuek jasan dezaketen tratuaurrean. Ez da ahaztu behar lege anti-terroristapean atxilotuak izan direla, eta lege bera izan dela, hainbat eta hainbat euskal herritarren tortura eta tratu txarrak ahalbiderratu dituen.
- 5.- Udal honek, atxilotuak hauek salatzeke egingo diren elkarretaratze guztietan parte hartzera deitzen du Lazkaoko herritar guztiak.
- 6.- Azkenik Anitz Eskisabel lazkaotarraren eta gainontzeko atxilotuen askatasuna eskatu nahi dugu.”

Alkateak aurkeztu eta EAJ eta EAren jarrera biltzen duen mozioak honela dio:

“ATZO EMAN DIREN ATXILOKETEN AURREAN

Atzo izandako atxiloketen artean Anitz Eskisabel Lazkaotarra atxilotua izan da. Gertakari honen aurrean, Lazkaoko udalak behin eta berriro berrestu dituen oinarriak gogora ekarri nahi ditu osoko bilkurara aurkezten den mozio honen bitartez:

- 1.- Lazkaoko udalak berriro ere giza eskubide guztien aldeko aldarrikapena egiten du eta kasu guztietan errespetatuak izan daitezela exijitzen du. Zentzu horretan, giza eskubideen urraketa suposatzen duten jokabide guztien aurrean bere gaitzespena adierazten du. Ez dugu onartzen, bakoitzaren diskurtso politikoaren interesen arabera soilik komeni denean salaketa egitea.
- 2.- Testuinguru honetatik abiatuta, atxilotuak izan diren pertsonen giza eskubideak ere zorrozki errespetatuak izan daitezen exijitzen dugu. Alde batetik, errugabetasun presuntzioaren eskubidea defendatu eta aldarrikatu nahi dugu, komunikabideen bitartez ematen den erruduntasun irudiaren aurrean. Zentzu honetan, neurri prebentiboak gehiegikeriaz erabiltzeak presuntzio hori deusez dezakeela ikusten dugu eta horrek pertsonengan kalte larriak sortzen ditu. Bestetik, atxilotuek dituzten eskubideak errespetatuak izan daitezen berme minimoak eman daitezela exijitzen dugu.
- 3.- Azkenik, edozein gatazka konpontzeko bide elkarriketatu sinesten dugula aldarrikatzen dugu, guztien errespetutik abiatuta eta bakoitzaren egitasmoak azaltzeko eta gauzatu ahal izateko bideak jorratuaz. Lan horretarako soberan daude jarrera baztertzailerak (Alderdien legearen aplikazioa) eta indarkeriaren erabilera (ETAren jardura).

Olaso zinegotziak (PP) esaten du hainbat oharpen egin nahi dituela. Esaten du ez dugula aurreiritzirik eta iritzi txarrik egin behar, zuzenbide estatu batean gaudela eta botere judiziala hiru botereetako bat dela eta ez dugula pentsatu behar ideien jazarpenik dagoenik, eta inolako irregularitaterik ez badago eta bere aurkako frogarik ez badago aske aterako dela.

Jendartetik norbaitek Olaso zinegotziak esandakoari erantzun egiten dio.

Honen ondoren bozketan jartzen da Areria Zutabeak izenpetutako mozioa eta Oso-ko Bilkurak, aldeko boturik gabe, aurkako zazpi botu (EAJ, EA) eta abstentzio batez (PP) berau ez onartzea erabakitzen du.

Jarraian bozketan jartzen da EAJ, EAren mozioa eta Osoko Bilkurak, aldeko zazpi botu (EAJ, EA), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PP) berau onartzea erabakitzen du.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, eguerdiko ordubata hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.